School to School

Indiako Kirolak eta jolasak

School to School programak Indiako kulturara hurbiltzea proposatzen digu eduki didaktikoen bidez eta materialak trukatuz Espainiako Lehen Hezkuntzako eskola baten eta Indiako maila berdineko Vicente Ferrer Fundazioaren errefortzu-eskola baten artean. Halako eskoletara joaten dira komunitate behartsuenetako haurrak eskola publikoaren aurretik eta ondoren, emaitza akademiko onak bermatzen dituzten eskola-laguntza eta -errefortzua jasotzera.

Trukearen bidez, programaren helburua da haurrek eurenaz bestelako errealitateak ezagutu, desberdintasunez jabetu eta elkartasunaren, justizia sozialaren eta erantzunkidetasunaren balioak ikas ditzaten, gizarte- eta ingurumen-arazo globalen aurrean. 2030 Agendak eta **Garapen Jasangarrirako 17 Helburuek (GJH)** jasotzen dituzte balio horiek.

Vicente Ferrer Fundazioak lan egiten dueneko Indiako errealitatetik abiatuta, hausnarketa kritikoa, enpatia, sormena, kulturen arteko komunikazioa, talde-lana, tolerantzia eta errespetua sustatu nahi ditugu, bai eta desberdintasunen aberastasunari balioa eman ere. Gainera, ikasleek giza eta gizarte gaitasunak, kontzientzia eta adierazpen kulturalak eta hizkuntza-komunikazioa garatuko dituzte. Horretarako, metodologia parte-hartzailea eta aktiboa proposatzen dugu, ikaslea ikaskuntzaren erdigunean jarrita.

Gaiaren edukiak

“Kirolak eta jolasak” deritzon gai honetan, Indiako kirol eta jolas ezagunenak ezagutuko ditugu. Ikusiko dugu, halaber, kirolak nolako ahalmen eraldatzailea duen, eta zer-nolako garrantzia izan dezakeen gizarteratzeko eta gizartea eraldatzeko. Horretarako, honako alderdi hauek landuko ditugu:

- Jolasteko eskubidea eta kirolaren balioak.
- Herri-kirolak Indian.
- Indiako mahai-jokoak.
- Jolas-orduko jolasak Indiako landa-eremuetan.
- Kirolaren ahalmen eraldatzailea.

Gaia ikasleei azaltzeko, irakasleek hainbat **bideo** balia ditzakete. Proposatutako **jarduerak** borondatezkoak dira, eta irakasleek ikasleen mailara egokitu beharko dituzte. Helburua da jorratzen diren alderdiak lantzea eta horiei buruz hausnarketa egitea, hezkidetzako alderdiak kontuan hartzea eta, bidenabar, krisiek populazio kalteberenetan sorrarazten dituzten ondorioez jabetzea. Proposatutako gaiak lantzeaz gain, materiala prestatuko da trukea egiten deneko Vicente Ferrer Fundazioaren errefortzu-eskolara bidaltzeko.

Ikasketa-curriculumarekiko lotura

“Kirolak eta jolasak” gaia Ingurunearen ezagutza irakasgaiari eskainitako orduetan landu daiteke, ikasleek norberaren errealitatea eta Indiakoa alderatzeko aukera izango baitute. Ingelesa irakasgaian ere txerta daiteke, hobe baita Indiako eskoletara bidaltzen den materiala hizkuntza horretan idatzita egotea. Jarduera batzuk gorputz-hezkuntzan, gizarte-zientzietan, arte-hezkuntzan eta gizarte eta giza balioetan ere egin daitezke.

School to School

Indiako Kirolak eta jolasak

Gaiari lotutako Garapen Jasangarrirako Helburuak

Zeharka, Garapen Jasangarrirako Helburu hauek landuko ditugu gai honetan: Pobreziaren amaiera (1. GJH), Osasuna eta ongizatea (3. GJH), Kalitatezko hezkuntza (4. GJH), Genero berdintasuna (5. GJH), Desberdintasunak murriztea (10. GJH).

Vicente Ferrer Fundazioak Garapen Jasangarrirako Helburuak ikasgelan lantzeko bideo eta gida didaktikoak ditu. Hemen daude eskuragarri: **https://fvf-manabadi.org/es/ods**

Gaiaren hezkidetzako helburuak

Fundazioak proposatzen duen **hezkidetza-gida** irakurtzea gomendatu nahi diegu irakasleei, hezkidetza zertan datzan sakondu eta genero-ikuspegian oinarriturik heztearen garrantzia hobeto ezagutzeko.

Gaia landuz, hezkidetzaren alderdiak barruratuko ditugu, eta, beraz, garrantzitsua da honako hau azaltzea:

- Ohituraz, emakumetasun (geldotasuna, sentsibilitatea, mendekotasuna) eta gizontasunarekin (bizkortasuna, gogortasuna, oldarkortasuna) lotutako estereotipoak, neurri batean, behintzat, indarrean daude gaur egun, eta eragin nabarmena izan dute kirolaren esparruan.

- Genero-identitatea jaiotzen garenetik bertatik ezartzen da gizartean portaera-jarraibide jakin batzuk ikasten ditugulako (panpinetan jolastea neskena da eta autoekin jolastea mutilena). Hala, ez da harritzekoa emakumeek nahiago izatea gizartean onartuta eta pertsona gisa barneratuta dagoen eredu femeninoari lotutako jardueretan aritzea, hala nola dantzan, eta gogorragotzat jotako kirol batzuetan, besteak beste, boxeoan, errugbian edo futbolean, ez jardutea.

- Oso garrantzitsua da neskatoak animatzea estereotipoz gizon edo mutilenak diren kirolak probatzera eta mutilak estereotipoz emakume edo neskenak diren kirolak probatzera. Ariketa egiteak ez du generorik, ezta sexurik ere, eta kirol bat bera ere ez litzateke sexu jakin batekin lotu behar.

- Bestetik, garrantzitsua da tradiziozko rolak hausten dituzten kirol horietan nabarmendu diren kirolari ospetsuen adibideak irakastea.

- Futbola, berez, ez da kirol txarra; bai, ordea, hari egozten dioten gizontasuna, edozein jarduerak baino leku handiagoa hartzeko era eta gizarte-esparruan ematen zaion neurriz gaindiko garrantzia.

Informazio osagarria

Indiako eskolarekiko trukea nola eta noiz egin behar den jakiteko, ondoko estekan eskuragarri dagoen School to School programaren egutegia eta aldiak kontsulta ditzakezue: **https://schooltoschool.es**

Programa Vicente Ferrer Fundazioaren hezkuntza-baliabideen webgunean (Manabadi) eskuragarri dauden beste hezkuntza-baliabide batzuk erabiliz osa daiteke: **https://fvf-manabadi.org/**

Bestalde, honelako ekimen solidarioak bultzatzera ere gogatu nahi zaituztegu:
https://fundacionvicenteferrer.org/es/escuelas-solidarias

«Argitalpen hau Nazioarteko Garapenerako Lankidetzaren Espainiako Agentziaren (AECID) finantza-laguntzaz egin da, "Mundu bat, 17 erronka. Agenda 2030 eta GJHak hezkuntza-komunitatera hurbiltzen". Bertako edukiak Vicente Ferrer Fundazioaren erantzukizunpekoak dira eta ez dute, nahitaez, AECIDen iritziarekin bat etorri behar».

VicenteFerrer Transforma la sociedad en humanidad

Gobierno de España · Ministerio de Asuntos Exteriores, Unión Europea y Cooperación · Cooperación Española